



Imanol Lasa Zeborio

*Gipuzkoako Foru Aldundi Txiki Garaiko Gobernantxako eta Gixartearekiko
Komunikazioko Departamentuko foru diputatu eta Diputatuen Kontseiluko idazkarria.*

*Diputado foral del Departamento de Gobernanza y Comunicación con la Sociedad y
secretario del Consejo de Gobierno Foral de la Excm. Diputación Foral de Gipuzkoa.*

ZIURTATZEN DUT:

Foru aldundi honetako Diputatuen Kontseiluak, 2019ko maiatzaren 21ean egindako batzarraldian, ondoko erabakia hartu zuela:

“Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Irungo Udalak 2011ko martxoaren 21ean Arbes 7.2.04 eremuko «EA-Ekipamendu Asistentziala» lursaila lagatzeko administrazio dokumentu bat sinatu zuten, bertan gizarte zerbitzuen ekipamendu bat egiteko.

Akordio horren ondorioz, aipatu lursailean gizarte zerbitzuen zentro bat eraikitzea erabaki zuten bi administrazioek 2018ko azaroaren 23an.

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, 31. artikulua 1. apartatuko b) letran xedatutakoarekin bat etorriz, sektore publikoko entitateek aukera izango dute elkarlanean aritzeko.

Eta garapenean, lege horren 2. apartatuak ezartzen du sektore publikoko entitateek ahalko dutela, nolahi ere, kontratazio espezifikoak batera gauzatzeko erabakia adostu.

Azkenik, 3. apartatuak dio ezen, kontratazio prozedura bat bere osotasunean hainbat erakunde beren izenean eta beren kontura batera garatzen dutenean, erakunde horien guztien erantzukizuna izango dela beren betebeharrak betetzea. Hori bera aplikatuko da erakunde bakar batek bere kontura eta gainerako erakunde interesdunen kontura prozedura administratzen duen kasuetan ere.

CERTIFICO:

Que el Consejo de Gobierno Foral de esta Excm. Diputación Foral, en sesión de 21 de mayo de 2019, adoptó el siguiente acuerdo:

“La Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Irun suscribieron con fecha 21 de marzo de 2011 un documento administrativo de cesión de la parcela “EA-Equipamiento Asistencial” del ámbito 7.2.04 Arbes de Irun para la ejecución del equipamiento de servicios sociales.

Fruto del anterior acuerdo, con fecha 23 de noviembre de 2018 ambas administraciones acordaron la construcción en la mencionada parcela un centro de servicios sociales.

De conformidad con la letra b) del apartado 1 del artículo 31 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, las entidades pertenecientes al sector público podrán cooperar entre sí.

Y en su desarrollo, el apartado 2 del mismo texto legal establece que las entidades pertenecientes al sector público podrán en todo caso, acordar la realización conjunta de contrataciones específicas.

Por último, el apartado 3 dispone que cuando un procedimiento de contratación se desarrolle en su totalidad de forma conjunta en nombre y por cuenta de varias entidades, estas tendrán la responsabilidad conjunta del cumplimiento de sus obligaciones. Ello se aplicará también en aquellos casos en que una sola entidad administre el procedimiento, por cuenta propia y por cuenta de las demás entidades interesadas.



12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, Gizarte Zerbitzuenak, 22. artikuluan ezarritakoaren arabera, foru eskumeneko bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuen artean daude adinekoentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzak eta eguneko zentroak. Adinekoei egoitza zerbitzua emateko modalitate bat da apartamentu babestua, eta udala da horien titularra.

Obren exekuzioaren arrisku operazionala esleipendunari ematen zaionez, kontratazioa obra emakidako kontratuaren bidez egin nahi da, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuarenak, 14. artikuluan xedatutakoaren arabera, prozedura irekia erabiliz.

Horretarako, dagokion kontratazio espedientea izapidetu da, gehienez 28 urte eta sei hilabeteko iraupenarekin formalizatzen denetik. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 289.012.922,16 eurokoa da (BEZa barne), eta kontratuaren balio zenbatetsia, berriz, 272.842.358,16 eurokoa.

Diputatuen Kontseiluak 2019ko maiatzaren 21ean hartutako erabakiaren bitartez behin betiko onartu da kontratazio espedienteari dagokion bideragarritasun azterketa.

Hori dela eta, Diputatuen Kontseiluak, Gizarte Politikako Departamentuko foru diputatuak proposatuta eta eztabaidatu ondoren,

ERABAKITZEN DU

Lehenengo.- Onestea Irungo Arbes auzoan gizarte zerbitzuen zentro baten proiektua idazteko, zuzentzeko, eraikitzeko, ekipatzeko eta ustiatzeko kontratazio espedientea, eta baita aipatu lizitazioa arautuko duten administrazio klausulen agiria eta preskripzio teknikoaren agiria ere.

Kontratuaren gehieneko iraupena 28 urte eta sei hilabetekoa izango da formalizatzen denetik. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 289.012.922,16 eurokoa da (BEZa barne), eta kontratuaren balio zenbatetsia, berriz, 272.842.358,16 eurokoa.

Bigarren.- Argitaratzea erabaki hau kontratatzailearen profilean, eta lizitazio prozedura irekia zabaltzea, dagokion iragarkia EBAOn argitaratuz.

Hirugarren.- Gizarte Politikako Departamentuko foru diputatuari ahalmena ematea kontratua esleitzeko, formalizatzeko eta egoki egikaritu dadin beharrezko izan daitezkeen egintza, erabaki eta ebazpenak emateko.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 22 de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, entre los servicios sociales de atención secundaria de competencia foral se encuentran los centros residenciales para personas mayores y personas con discapacidad así como los servicios de centro de día. Respecto a los apartamentos tutelados que constituyen una modalidad de servicios de alojamiento para personas mayores, la titularidad de la competencia es municipal.

Dada la transferencia a la concesionaria de un riesgo operacional en la explotación de las obras, se pretende llevar a cabo la contratación a través de un contrato de concesión de obras, de acuerdo con el artículo 14 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público y procedimiento abierto.

A tales efectos, se ha tramitado el correspondiente expediente de contratación, con una duración máxima de 28 años y seis meses desde su formalización. El presupuesto base de licitación asciende a 289.012.922,16 € (IVA incluido) y el valor estimado del contrato, es de 272.842.358,16 euros.

Mediante acuerdo de Consejo de Gobierno Foral, de 21 de mayo de 2019, ha elevado a definitivo el estudio de viabilidad referido al expediente de contratación.

En virtud de todo lo expuesto, el Consejo de Gobierno Foral, previa deliberación y a propuesta de la diputada foral del Departamento de Políticas Sociales,

ACUERDA

Primero.- Aprobar el expediente de contratación para la redacción del proyecto, dirección facultativa, construcción, equipamiento y explotación de un centro de servicios sociales en el barrio de Arbes de Irun, así como los pliegos de cláusulas administrativas particulares y los pliegos de prescripciones técnicas que regirán la licitación.

El contrato tendrá una duración máxima de 28 años y seis meses desde su formalización. El presupuesto base de licitación asciende a 289.012.922,16 € (IVA incluido) y el valor estimado del contrato, es de 272.842.358,16 euros.

Segundo.- Disponer la publicación del presente acuerdo en el perfil de contratante y la apertura del procedimiento de licitación abierto, mediante el preceptivo anuncio en el DOUE.

Tercero.- Facultar a la diputada foral del Departamento de Políticas Sociales para adjudicar el contrato, formalizarlo y para adoptar cuantos actos, decisiones y resoluciones sean necesarias para su correcta ejecución.



Era berean, ahalmena ematen zaio 2022-2048 urteetarako gastua baimendu eta xedatzeko –kreditu egokia eta nahikoa dagoela egiaztatu ondoren–.

Asimismo, se le faculta para autorizar y disponer el gasto correspondiente a los ejercicios de 2022-2048 –una vez comprobada la existencia de crédito adecuado y suficiente–.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Nahi izanez gero, ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete interesatuek Donostian dauden administrazioarekiko auzietako epaitegietan, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik bi hilabeteko epean.

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante los juzgados de lo contencioso-administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertze ko hautazko errekurtsua aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitalpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Nolanahi ere, lizitazio iragarkiaren aurka nahiz baldintza administratibo berezien eta ezaugarri teknikoaren orrien aurka KONTRATAZIO ALORREKO HAUTAZKO ERREKURTSO BEREZIA aurkez daiteke bakarrik administrazioarekiko auzi errekurtsuaren aurretik, Kontratazio alorreko errekurtsuotarako Foru Auzitegi Administratiboari, iragarkia argitaratu edo orri horiek jaso edo eskuragarri jarri ziren egunaren biharamunetik hasita 15 laneguneko epean. Bi kasutan, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertze koaren edo bereziaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.”

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En todo caso, contra el anuncio de licitación y los pliegos de cláusulas administrativas particulares y de prescripciones técnicas sólo cabe interponer, previa y potestativamente, el RECURSO ESPECIAL EN MATERIA DE CONTRATACIÓN ante el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales en el plazo de 15 días hábiles a partir del día siguiente a aquél en que se haya publicado el anuncio o se hayan recibido o puesto a disposición los pliegos. En ambos casos, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o el especial, o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.”

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egiten dut Donostian, 2019ko maiatzaren 30ean.

Y para que conste, extiendo la presente certificación en San Sebastián, a 30 de mayo de 2019.



